

## 1.- BALIO PROPOSAMENA:

Gure enpresak arropa birziklatzeko aukera ematen die bezeroei. Kutsadura gutxitzea dugu helburu, jendeak erabiltzen ez duen arropa asko duelako eta hortaz, gehiago erosten jarraitzen dutelako. Gure dendan arropak transformatu eta diseinatu ahal ditugu bezeroak nahi duen modura.

Gure enpresa lehiakideengatik bereiz daiteke honakoen bitartez:

1. **Prezioak:** Gure enpresako prezioak merkatuarekiko merkeagoak dira.
2. **Diseinua:** 2.eskuko materiala erabiliko dugu eta guk egingo ditugu diseinuak. Jozi, margoztu... gure espezialitateak direlako.
3. **Pertsonalizazioa:** Arroparen diseinua norberak pertsonalizatu ahal duenez, gure enpresa adin eta sexu guztietara egokitzen da. Horrez gain, eskaerak etxeetara bidaltzen ditugunez toki geografikoetara ere egokitzen da.
4. **Prestazioak:** Bezeroek gure dendara ekarriko dute erabiltzen ez dituzten arropak, ondoren guk diseinatu eta beste bezeroei eskainiko dizkiogu.
5. **Eskuragarritasuna:** Bezeroek arropa merkatuan baino merkeagoa izango dute eskuragarri, eta gure dendara etorri ezin badute ere, etxera bidaltzen ditugu eskaerak inongo arazorik gabe.

